


Hitzatzea

Haur eta Gazte Liburuaren IV. Biltzarra Barrutik IZASKUN JAUREGI



Uztailaren 3, 4 eta 5ean burutu zen Haur eta Gazte Liburuaren IV. Biltzarra Donostiako Miramar Jauregian. Biltzarra OEPLIren baitan federatuta dauden lau atalek eta Portugalgo IBBYren atalak antolatu zuten. Bertara, 200 pertsona inguru hurbildu ziren, matrikulatu zirenen eta gonbidatuen artean. Arrakasta handia izan zuten bai eskaini ziren hitzaldi eta komunikazioek bai burutu ziren ekintza osagarriek, bertaratutakoek hitzek eta iritziak ziurtatu zuten. Orain, egun haietan entzun izan ziren hitzaldien ondorioak jasota daude gaztelaniaz eta euskaraz <http://www.desberdin-irakurriz.com> orrialdean.

120 pertsona inguruk eman zuten izena Galtzagorrik, OEPLIren eskaeraz, iazko uztailan Donostian burutu zuen Haur eta Gazte Literaturako IV. Biltzarrean. «Ezberdin irakurriz: Haur eta Gazte Liburua Kultura Aniztasunean»

izan zen Biltzarraren leloa. Haur eta Gazte Literaturaren esparru ezberdinetan lanean aritzen diren pertsonak bildu ziren oro har Miramar Jauregian hiru egunetan zehar: idazleak, bibliotekariak, irakasleak, argitaldaria, ilustratzaileak... Espainiako Estatu osotik jende andana bertaratu zen. Nazioartetik ere etorri ziren zenbait. Besteak beste, IBBYko lehendakari den Patricia Aldana izan genuen gonbidatu, Kanadatik etorria.

Egunez egungo egitarauak goiza eta arratsaldea hartzen zituen. Goizean Osoko hitzaldia eta bi ponentzia izan genituen ia egunero. Ondoren, komunikazioak bi geletan, aldi berean, kongresistak batetik bestera igarotzen zen, zituen interesen arabera. Orain, egun haietan landu ziren eduki guztien ondorioak ikusgai dituzue, euskaraz zein gaztelaniaz <http://www.desberdin-irakurriz.com> orrialdean.

Besteak beste, ondorio horietan aurkituko dituzue Elisa Bonillak Mexikoko Irakurketa Plan Nazionalari buruz kontatu zizkigunak. Nola 2000-2005 urteen artean 200 milioi dolar gastatu zituzten bertan 175 milioi liburu erosteko. Eta batez ere, zein baldintza erabili ziren erosiko ziren liburuak orotarikoak izan zitezten bermatzeko: hizkuntza bakarrean nahiz bi hizkuntzatan argitaratutako liburuak (hizkuntza indigena eta gaztelania), jatorri ezberdineko liburuak, genero ezberdineko liburuak, formatu ezberdinekoak, argitaletxe ezberdinetakoak...

Baita Enrique Gil Calvok, kultur aniztasunak bitartekariak trebatzeko sortzen dituen erronken inguruan egin zuen hitzaldiaren ondorioak. Besteak beste, maitasun erromantikoarekin alderatu zuen irakurzaletasuna sortzeari begira bitartekari hauek zuten funtzioa. Irakurzaletasuna sustatzeko, kultura anitza den gizarte batean, hiru giltza eskaini zituen: hezkuntza sentimentala (guraso eta seme-alaben artekoa); anai-artearen harremana (kirola edota Internetara diru askotan beste jatorri bateko pertsonekin harremanetan jartzen gaituztenak, irakurketarekin ere gauza bera gerta daiteke); eta maitasun erromantikoa, hau da, gor-teiatzea, bestea konkistatzea (alegia, Zelestinak behar direla irakurketa sustatzeko ere).

Bi adibide besterik ez ditugu aipatzen hemen, baina hitzaldi guztien ondorioak dituzue ikusgai, lehen esan bezala Biltzarrerako prestatu zen web orrialdean.

Ekintza osagarriak

Biltzarreko egunetan hitzaldiak, ponentziak eta komunikazioak entzuteaz gain, hainbat ekitaldiz gozatzeko parada ere izan zuten ber-

taratutakoek. Besteak beste, lehen egunean Juan Kruz Igerabide eta Patxi Zubizarretaren hasiera hitzaldi bikainak txalo zaparrada izugarria jaso zuten. Eta zeresana eman zuen ondorengo egun guztietan ere. Egundorretan bertan, iluntzean, inauguratu zen Koldo Mitxelena Kulturunean «Labirintoaren erbestean» areto literarioa. Bertako Ganbaran kokatua zegoen labirintoan galtzeko esperientzia bizi ahal izan zuten Biltzarrerera etorritako hainbat pertsonak.

Bigarren egunean, berriz, Goringo antzerki taldeak kalejira baten bidez eraman zituen biltzarkide guztiak hitzaldiak egiten ziren geletatik, Elena Odriozolaren erakusketa paratuta zegoen Miramar Jauregiko lehen solairura. Jende guztia makurtuturik zegoenean, zabaldu zen Elena Odriozolaren ilustrazioen erakusketaren atea. Eta horrela geratu zen inauguratua.

Azkenik, Biltzarrai amaiera emateko, ondorioak irakurri ostean, piano kontzertua eskaini zuen Mariana Palaciosek. *Les Contes de ma Mère l'Oie* izeneko obra eskaini zuen. Ondoren, Iñaki Telleriaren eskutik Perkutsio kontzertuaz gozatzeko aukera izan zen, txalaparta eta guzti. Bukaeran, nola ez, luntxa eta argazkiak. Eta irribarreak, batez ere Biltzarraren komisario izan diren Itziar Zubizarreta eta Marijose Olaziregiren eta batzorde zientifikoan nahiz exekutiboan lan egin duten kideen aurpegietan, egindako lan andaren ondoren, Biltzarrak espero izandako fruituak eman zituelako.


MAX BILBAO



El IV Congreso del Libro Infantil y Juvenil se celebró en el Palacio Miramar de San Sebastián los días 3, 4 y 5 del pasado julio bajo el lema «Leo diferente: el libro Infantil y Juvenil desde la Diversidad Cultural». Organizado por las cuatro secciones de la OEPLI y la sección portuguesa del IBBY, congregó aproximadamente a 200 personas entre congresistas e invitados. Acudieron a la cita profesionales de las distintas ramas de la Literatura Infantil y Juvenil: escritores, bibliotecarios, profesores, editores, ilustradores. . . Muchos procedían de distintas comunidades del Estado Español. También pudimos gozar de la presencia de algunos de procedencia internacional. Por ejemplo, de la presencia de nuestra invitada especial Patricia Aldana, presidenta actual del IBBY, que se trasladó desde Canadá hasta San Sebastián para acudir al Congreso. Tanto las ponencias y comunicaciones como las actividades complementarias tuvieron una gran acogida, según las palabras y opiniones de los allí congregados.

The 4th Congress on Books for Children and Teenagers was held at the Miramar Palace in Donostia-San Sebastian from 3-5 July, this year, under the slogan: «I read differently: books for Children and Teenagers from the Perspective of Cultural Diversity». It was organised by the OEPLI's four sections as well as the IBBY's Portuguese section, and gathered together about 200 people made up of delegates and guests. It was attended by professionals from different branches of Literature for Children and Teenagers: writers, librarians, teachers, publishers, illustrators, etc. Many had come from different communities of the Spanish State. We also had the chance to enjoy the presence of people from abroad. For example, the presence of our special guest, Patricia Aldana, current President of the IBBY, who travelled to Donostia-San Sebastian from Canada to attend the Conference. The papers and communications as well as the complementary activities were very well received, according to the comments and opinions of the people who attended.

Translated by Sarah J. Turtle



BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Posta-kodea:

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 I

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkarte. Zemoria, 25, behe. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487